

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1989ko Martxoak 3, 13. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Pobrezia, urrutira joan beharrik ez dagoenean

Azken urteetan Euskal Herrian krisi ekonomiko batetan murgildurik gaude. Arrasaten badirudi krisi honen eragina beste leku batzutan baino txikiagoa dela, langabezi kopuruari jaramon eginez gero behintzat. Hala ere gure artean ere badago jendea bere oinarrizko beharrak betetzeko adina diru jasotzen ez duena. Txirotasun egoera honetan bizi diren familia hauei, orain arte Karitasek eta Diputazioak laguntza txiki batzu luzatu die, baina laguntza hauek gaur egungo gizartean bizi duintasunez bizi ahal izateko ez dira nahiko izaten.

(10. or.)

ORAIN ETA HEMEN

Ikastolak komenioa sinatu
Ikastola gehienek egin duten bezala, San Frantzisko Xabier Ikastolak sinatu du Ikastolen Konfederazioa eta Hezkuntza Sailaren arteko urtebeko komenioa. (7.or.)

Azkenean "Y" delakoa Arrasatetik pasatuko?
Informazio kontrajarriak entzun dira, zehatz mehatz zer egingo ote den oraindik jakiterik ez dagoelarik. (7.or.)

ELKARRIZKETA
Zentruko Zuzendaria den Blanca Roncalekin elkarrizketa. (17.or.)

KIROLAK
"Pitxi" Herrero
"Arrasate Kirolak" esku-baloi taldeko entrenatzailearekin solasean. (19.or.)

Azkenengo alean **komiki** batez disfrutatzeko aukera izan zenuten; baina, azken orduko "arazo tekniko" horietako bat dela eta, 2. eta 6.orriak elkar trukaturata atara ziren. Barkamena eskatzen dizugu, batez ere bere egilea den MIKEL LEOZI.



HOTZ - BERO

zibro
kamin TURBO

Kanpantorpea, 2

Tfnoa: 79 70 98

79 67 54

ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziaz	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erabiltzaileen Elkarte	798777

3 OSTIRALA

— **Pedagogi Ihardunaldiak:** "Lau maisu europear". Hitzaldia: "Renovación pedagógica: herencia y creación" (Marta Mata); Monterronen, 7,30etan.

— **Zinea:** Alai: "Un hombre y una mujer (2ª parte)."

Novedades (Bergara): "El oso" 10,30etan.

— **Goardiako farmazia:** Aurora Ruiz, Maalako Arrabala.

4 LARUNBATA

— **Hitzaldia:** "Aristotelesengandik Hobbesengana: botere politikoa eta legitimapen morala" (Juan Aranzadi); UNEDen (Bergara), goizeko 10etan.

— **Zinea:** Alai; "Arma Joven" Novedades (Bergara): "El oso" 5; 7,30; 10,30.

— **Kontzertua:** Orfeoi Donostiarra, Zuzendaria: Jose Antonio Sainz. Jon Batista Deunaren Parrokian, 8etan.

— **Goardiako farmazia:** A. M. Morales, Av. Alava.

5 IGANDEA

— **Zinea:** Alai "Arma joven" Novedades: "El oso" 5 7,30 10,15

— **Futbol-partidua** 4,30etan, Atxabalpen Mondragon - Tolosa.

— **Trikitixa:** 7-7,30 Kalejira. 7,30-9 emanaldia Sebero Altuben "Laja eta Landakanda" rekin

✓ ERAKUSKETAK

— **Estibaliz Ormaetxea:** Pintura-Erakusketa, Etxe Aundi Jatetxean (Oñati). Hilabete osoa.

— **Joseba Lacadena:** Pintura-Erakusketa, Galeria 44an.

— **Lau maisu europear:** Maria Montessori, Ovide Decroly, Jean Piaget eta Célestin Freinet. Erakusketa pedagogikoa. Monterronen, Martxoaren 10arte, 4,30-8,30.

✓ TXAPELKETAK

— **Mankomunitateko txiste-kontalari txapelketa:** Martxoaren 11an Antzuolan. Izenemateak: 76 25 74 edo 76 62 36 telefonora lehenbaitlehen deitu. Sariak: 20.000, 10.000, 8.000 eta 5.000 pta.

— **Doke-Txapelketa:** Ostiralean, hilaren 11an; 2,45etan Santa Barbaran. Izenemateak: 100 pta Epea asteazkenean, hilak 8, bukatzen da. Antolatzailerak: AEK. Saria: sorpresa.

✓ PAPER ETA TRAPU ZAHARREN BILKETA

— **Orkatz Taldea:** Larunbatean, hilak 4, goizeko 10etatik aurrera

— **Goardiako farmazia** J. R. Torre, Ferrerías.

6 ASTELEHENA

— **Zinea:** Alai "Arma joven" Novedades "El oso" 7,30etan.

— **Goardiako farmazia:** Santiago Español, Iturriotz.

7 ASTEARTEA

— **Zinea** Alai "Arma joven"

— **Pedagogia Ihardunaldiak** Hitzaldia "Ezagupenaren eraikuntza esperientzia bat (Piaget)" (Antzuolako Eskolako Irakasleak). Monterronen, 7etan.

— **Goardiako farmazia:** Corcuera, Elcano.

8 ASTEAZKENA

— **Pedagogi Ihardunaldiak** Hitzaldia "Freinet-Euskadi ingurugiroaren ezagutza. Hernaniko Langile Ikastolaren praktika" (Eli Igazabal & Itziar Egiguren). Monterronen, 7etan.

— **Goardiako farmazia:** Irizar, Erguin.

9 OSTEGUNA

— **Pedagogi Ihardunaldiak** Hitzaldia "Berehala datorren Erreformaren oinarri pedagogikoak" (Lontxo Oihartzabal). Monterronen, 7etan.

— **Goardiako farmazia:** Amezua, Santamaina.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.797164

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio

-kontseilua: Jose Felix Diaz
de Tuesta
Harry Zaraia
Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez
de Mendizabal
Mikel Irizar
Karmele Zuazubiskar
Patxi Montero
Juan Martin Elexpuru
Mikel Arregi
Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso
Gerardo Markuleta
Estepan Plazaola
Jesus Mari Garai

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Orkatz Skaut-Taldea


Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164

Copyright: ARRASATE PRESS

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



Jokin Zaitegi, hamar urte bere heriotzetik

Arrasaten jaio zen. Mundu osoa izan zuen etxetzat. Eta Arrasatera itzuli zen hiltzera. Datorren Abuztuan hamar urte izango dira gure artetik joan zela.

Larunbat gau honetan, luma hartu eta lerro batzuk idaztera gertuzen naizenean, Iokin Zaitegiren oroitzapena etorri zait, arrasatear idazleak nire bizitzan utzi zuen hondar baliotsuaz hausnarketa egin dudalarik; agian, hausnarketa ipini beharrean gogorapena idatzi behar-ko nukeen, haiek aspaldi klasifikatu bait nituen.

Iokinekin bosten bat urtetan zehar adiskidantzan aritu ahal izatea, bizi guztian izan dudan ohorerik haudienetakotzat hartu behar dut. Berak eragin ninduen "Sebero Altube" liburua idaztera, bi urte beranduago bere biografiari elkarrekin ekingo geniola susmatu barik.


Gizon gogorra, lehorregia askotan; setati gehienetan. Baina, bide batez, irakasle paregabea, idazle aparta eta eragile bakarra. Guatemalatik azkeneko aldiz etxera-

tu zenean, 1972an, lehen iskanbila ofiziala zenbait apaizkiderekin izan zuen. On Jose Luis Iñarraren bitartekotzari esker baretu ziren urak. Ezin uka, haren portaera harro xamarrean josulangundiak utzitako arrastoa.

Beharbada, Arrasate mailan Iokinen gaineko zehazkizunak ezagunagoak izango dira orain hil zenean baino. 1976an herriko seme kuttun izendatua izan zela, inork gutxik zenkien Zaitegiren lanari buruzko ezer. Gaurregun ere, gehienentzat ezezagun hutsa dugu, nahiz eta -ene irudiz- harekiko hurbilketa zintzoagoa izan, arrasatear euskaltzaleei dagokienez. Nolanahi ere, askoz gehiago sakondu behar-ko genuke Iokinen gorabeheretan, euskal kulturari adierazi duenaz hobeki jabetzeko.

Hamar urte izango dira kixote erraldoi hura gugandik dasagertu zela. Eta efemeridea aprobetxatu behar-ko litzatekeela deritzat, gero eta garbiago eduki dezagun zutaberik sendoena -gure hizkuntza- ongi sustraitu gabe.

Josemari Velez de Mendizabal



**inprimategia eta
autoedizio
zerbitzuak**

Ozaeta 1, Tfnoa 76 27 41 BERGARA



ARRATE IRRATIA, S.A.
FM - 101,5

Goizeko 9etatik
Gauko 11ak arte
Irratsaio denak EUSKARAZ

ARRATE IRRATIA
EUSKAL SINTONIA

**GIROA
AROTZA**

**ZABALDU BERRIA
DUGU !!**

Iturriotz, 14 ARRASATE



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 799457

ASA
ASEGURUAK

Zeuzertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailatakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE

Gaztetxeak protohistoria eta protohistoria

Ene Jesus! Gaztetxea dela eta ez dela a zer nolako iskanbilak sortu diren azken aste pare honetan Arrasate herri prodigioso honetan! Itxura danez arazoak ez dira berriak, aurretik ei datoz. Nik neuk behintzat halako konklusioa atera nuen Udaltxe eta Gaztetxeko ordezkarien artean Monterroien burututako eztabaidan. Dena den eta han entzunagatik sinbologia aldatetak bete zuten arazo honetan detonante lana, ustez gorriak direnak mailua eta igitaita basterreratuz atxurra erabili bait zuten.

Baina natorren izenburuaren harira, Historiara, neure eritziak kontatzeotan beste izenburu bat beharko luke idatzi honek eta: Udaltxean behera-penak, Gaztetxean gora-bihotzak.

(...) Euskal Herriaren lehen aztarnak denboraren gau beltzean galtzen direla jakina da. Euskalduna betidanik Herri ilustratu gabea izan da. Inoiz ez du bere historia iskribatu. Historia beti idatzi izan diote besteek, eta zoritxarrez, sarri-sarri etsaiek, eta honela ez da erraza izaten norberaren nondik-norakoak jakitea.

(...) Batzuek kaukasiartzat jotzen dute jatorria, besteek Tubal edo Aitorren leinuaren azken adarretik zuzen-zuzenean gatozela diote, ez da falta Adan eta Evak Paradisotik egotziak (gaur egun kalean darabilgun lexikoan estrainatuak) izan zirenean jaulkiriko lehen-dabiziko hitzak euskaraz bota zituztela dionik, bai eta Atlantida mitikoaren hondamena suertatu zenean salbatu ziren gutxiek orain Euskadi izenez ezagutzen dugun lurraldetara jo zutela, Herri berri bat eratuz, diotenak, ...(...)

Eta non edo zertan datoz bat teoria guzti horiek? Zorionez eta ikerketa seriagoak burutu ondoren Jorge Luis Borgesek botatako boutade batek eman zidan behar nuen pista: "Euskaldunak beltzak baino alperragoak dira, ardiak zaintzeko ezik ezertarako ez dute balio". Hemen nere ardura eta jakinminak asetzen zituen hitza. Ardia. Hementxe daude teoria guztiak d'acord eta all right. Euskal Herria artzain

kulturan murgildurik garatu den herria dugu. Kultura honek beste kultura guztiek lez, baditu bere berezko diren ezaugarriak, bere Totem eta Tabuak. Eta Totem artean, nola ez, ardia dugu begibista-koenetakoa. Bueno, ardia eta ardiarengandik lortutako produktuak, batipat gazta. Guzti honen froga ugari, edonor konbenzitzeko lain, Artean dugu: hala Trikuharriek, nola estela funerarioak gazta itxura dute, txistulariaren danboliña gazta luzekote bat besterik ez da, eta honela hainbat eta hainbat exemplu. Danen artean adierazgarrienak, zoritxarrez dagoeneko desagertuak, gaztaren omena goratzearen eraikitako, tenplu sakratuak: Gazta-etxeak. Gaztetxeak. Hona bada gazteok zertan dihardugun: milaka urteetako tradizioak berreskuratu nahiean. Eta gure zorroa irain eta laidoz betetzea besterik ez dugu lortu. Baina, ojo!, Historiak aurrera jarraitzen du, baita istorioak ere. Ez dugu ez etsiko. Ez dugu ez amore emango.

Hori hala bada, halabiz!

Hala ez baldin bada, halatsu!

Txomin Arrieta

AEK dela eta

Euskararekin zerikusirik duten gai guztiekin bezala, azkenaldi honetan plazaratzen ari den AEK eta Eusko Jaurlaritzaren arteko gatazkarakin arduratuta gaude. Herri mailan eta gure artean gaia gehiago ezagutu eta argitu artean, AEK-k bizi duen egoera larriaren aurrean gure kezka azaldu nahi dugu ohartxo honen bidez.

Garbi daukagu egiten ari diren esfortzu guztiak eta gehiago behar beharrezkoak direla eta izango direla euskararen normalizazioa lortzeko, ahalegin honetan ari den inori oztopoak jartzea bidezko ikusten ez dugularik.

Beraz, AEK-k merezi duen tratamendu duina eskatuaz gain, euskararen normalizazioa lortzeko oraindik urruti gaudenez, berau lortzeko euskarari ematen zaizkion aldeko tratamendua eta laguntzak murriztu beharrean, areagotu egin daitezten aldarrikatu nahi dugu.

AED Elkarte.

Zer deritzozu Urkulu peatonalizatzeko dagoen asmoari?



Migel Lete
(langilea)

Beno, kotxea sarreran utziz gero ondo dagoela uste dut. Ez dut uste horrenbestera egoten denik. Tamalgarriagoa deritzot orain dagoen bezala uztea, ibilbide guztia hondatuta.



Amaia Gonzalez
(ikaslea)

Ondo ikusten dut, baina nire eritziz sarreran edo nonbait kotxea uzteko leku apropos bat egin beharko lukete. Horrela bertara ez lirateke kotxeak sartuko, baina bertara kotxez joan ahal izango ginateke.



Itxaro Barrutia
(ikaslea)

Ondo ikusten dut, kotxe asko ibiltzen da inguruetan eta ezin da gustora jolasten aritu. Oso arrisku-tsu suertatzen da.



Josefa Gallastegi
(jubilatua)

Bai ondo ikusten dut, kotxe gehiegi egoten da eta oinez doana molestatu egiten dute.

Hire azken tragoa

OTAMENDIN

Legarreko pabiloia

Arrasate

KAJOI TABERNA

erdiko kale 22
Tfnoa: 79 32 27



Ekaitz

GOSARIAK

Goizeko 7etatik zabalik,
astelehenetik ostiralera

Otalora, z/g.

Tfnoa: 79 37 76

**MONTE
TABERNA**

Maalako Errebala, 11

Tfnoa: 79 20 56



SOKOA

Iturriotz kalea, 12

Tfnoa: 79 96 25

Arrasate

**I
R
A
T
I**

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80



Jende asko bildu zen euripean

tean ospatu zen Txomin Iturberen bigarren urtemuga, beronekin batera Negoziazioaren aldeko kanpainari amaiera eman zitzaionlarik.

Guardasolpean milaka lagun bildu ziren, arratsaldeko 5,30etan Zaldibarrren, Xabier Zubizarreta, Itziar Aizpurua eta Txema

Monterok eman berenreko mitin politikoa entzuteko.

Hamar terdian Kiroldegian "Negoziazioaren alde" lema berarekin jarraituz, musika jaialdi ederra izan zen.

Negoziazioaren aldeko ekitaldiak

Bigarren urtez eguraldiak lagun du ez bazuen ere, joan zen larunba-

Ospitaleko langile ebentualen salaketa

Ospitaleko pertsonal fijoaren ordu-murrizketa dela eta, ebentualak kubritzen ari dira, astebukaeretan ere, sobratzen diren orduak. Langile hauek salatzen dute ez dagoela berrondaterik beraien ordutegia egokitzeko; eta, nahiz eta aspalditik postu fijoaren promesa jaso, ebentual gisa jarraitzen dutela.

Osakidetzak aterako dituen plazarik, Ospitalaren egoera konpontzeko ez direla nakikoak izango ere salatzen dute.

Lan-antolaketaaren "desmadreak" asistentzia-medikorako kalte handia suposatzen duela esan behar da.

EPA, hezkuntza eta kultur zentrua

Udazkenetik funtzionatzen ari den arren, astelehenean, hilak 27, Helduen Heziketa Iraunkorrerako Zentruaren inaugurazio ofiziala izan zen.

Zentru hauek Hezkuntza Sailak eta Udalen arteko proiektuak dira; eta bere helburuak pertsona guztiei oinarritzko formazioa ematea, eta gizakia bere inguruan integratzea dira. Oinarritzko irakaskuntzaz gain (matematika, lengoia, zientziak...), "kultura ihardunaldiak" eta "berezko-hezkuntza" deitutakoak ere badute lekua. Hitzaldiak, irteerak edo



B. Burgos, X. Zubizarreta, G. Tomasena, Aranzabal eta E. Molinero

aisialdirako-hezkuntza bezelako ekitaldiak; eta zinea, musika, informatika edo sexualitatea bezelako gaiak ere tratatzen direlarik.

Arrasateko zentrua Ferrerias kalean kokakuta dago, eta 3 irakasle eta 126 ikasle (16-60 urtetakoak) daude dagoeneko; graduatu, graduatu-aurrekoa eta alfabetatze-mailetan. Matrikula debaldekoa da eta ikasleek egunero 2 klase ordu hartzen dituzte, 4etatik 6etara edo 7etatik 9etara.

Zentruak hiru gela, argazki-laborategia, liburategia eta ordenadore-gela ditu.

Bukatzeko, esan behar zentru hauen inplantazioa hazten doala, Gipuzkoan urte batetan 27tik 47ra pasatu direlarik.



VIGURI, S.A.

T.B - BIDEO - Hi-Fi

Merkatuko markarik inportanteenak eta azkeneko berrikuntza teknologikoak


INTERESIK KOBRATU GABE FINANTZIATZEN DITUGU ZURE EROSKETAK!!

VIGURI, gertuago zeure zerbitzura.

Iturriotz, 33

Zerkaosteta, 24

Tfnoa: 798565



LAMIAK

Arrasate Pasealekua, 2, behea
Tfnoa: 79 72 63

Ikastolak komenioa sinatu

San Frantzisko Xabier Ikastolak, bere Batzar Zuzentzailaren bidez, sinatu du Ikastolen Konfederakundeak eta Hezkuntza Sailaren arteko urtebeko komenioa.

Komenio honen bidez iaz firmatutako "Ikastolak eta Herri Eskolak Biltzeko Legea" deitutako marko legalari praktikara eramateko arautegia ematen zaio.

Akordio hau politikoa da eta 4 gauza ziurtatzen ditu:

— Pertsonalen gastuen %100a Hezkuntza Sailak ordaintzea.

— Iazko Abenduaren 18an ikastolan zegoen langilegoaren lanpostuak, gelak eta ereduak mantentzea.

— Eskola Publikoekin konparatuz, pertsonal eszedentearen kasuak irakaskuntzaren zerbitzuan ipintzea.

— Edifizio publikoen erabilpena dohainik izatea.

Komenioa sinatzerakoan, bi aukera zegoen: ondarea (patrimonia) eman edo ez, S. Frantzisko X. Ikastolak bigarrena aukeratu duelarik. Aukera hau hartzerakoan, besteak beste, bi arrazoi hartu dira kontutan:

— Euskal Eskola Publikoaren Legea egin barik dagoenez, zehurtasuna edozein pausu eman aurretik, eta



Ikastolaren publikotasunak errekonozitu gabe jarraitzen du

— Ondarea emateko moduko egoera ekonomikoan ez dira aurkitzen.

Komenioa Euskal Eskola Publikoa eraikitzeko aurrepausotzat hartzen da. Ikastola gehienek eta ekonomikoki fuerteenek sinatu dute, eta esan daiteke sinatze hau gizarte kontzientzarengatik izan dela.

Pedagogiaren astea

Barcelonako "Institut Municipal d'Educació"k antolatuta, Martxoaren 2tik 10era erakusketa eta 4 hitzaldi izango dira Monterronen (ikus Agendan).

Ihardunaldi hauetan Europako berrikuntza pedagogikoa egin duten lau autore garrantzitsuenetarikoen obrak aztertuko dira: Montessori, Decroly, Piaget eta Freinet.


Joku pedagogikoak, baliabide praktikoak eta ikusentzuteko materiala ikus gai izango da.

Hitzaldien artean, aipatu Marta Mata pedagogo kataluniarrena.

"Y" Arrasatetik pasatuko ote?

Nahiz Elorrioren nahiz Gesalibarren, badirudi azkenean Komunitate Autonomoko hiru hiruburuak lotuko dituen abiadura handiko eta zabalera europarreko trenbide berriaren "Y"ren bertzea hemengo inguruetan kokatuko dela.

Trenbideak 139 km. izango ditu, hauetatik 76 tunelean izango direlarik. Obra honek 157.000 milioetako aurrekontua du, eta proiektua hementik 8 aste barru bukatuta egotea



Geltokia non kokatuko den zehaztu barik dago

espero da.

Arrasaten geltokiren bat edo zer egingo den esateko goiz da oraindik argi dagoen gauza bakarra lineen aldaketa hemen egingo dela izanik.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^a Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^a Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higuera: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsasa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea .

Arrasate

laburrak

X Trikitixa emanaldiak

SUDCek antolatuta, Martxoaren 5etik aurrera, igandero Sebero Altube Plazan trikitixa emanaldiak izango dira. 7etatik 7,30etara, kalejira; eta 7,30etatik 9etara, emanaldia izan go da.

Hilaren 5ean, Laja-Landakanda; 9an, Marixabel-Itziar; 12an, Koldo-Arantza Iparragirre; eta Apirilaren 1ean, Kepa, Zabaleta eta Motriko izango ditugu ikusgai.

X Perestroikako zinea

Zenbaitek marketing sozialista hutsa bezala ikusten duen "Perestroika"ri esker, hainbat zuzendari sovietarren filmografiak ikusteko aukera izango dugu.

Beti Amaya antzokian, eta 8,30etan: Martxoaren 16an, Gleb Paufilov-en "Gaia" izango da, erreallismo sozialistaren kritika bat. Hilaren 23an, Arseni Tarkovski-ren "Is-pilua" eta hilaren 30ean, "Testigurik gabe", Nikita Mikhalkov-ena; filmak pareja hautsi baten historia kontatzen digu.

X AMATEko zabortegia

AMATEko zabortegia erretzen diren materialeksekulako kea ataritzen dutela esanez salaketa jaso dugu. Bai ingurugiroarentzat bai inguruko biztanleentzat erreketa hauek oso kaltegarriak dira. Nahiz eta Ertzantza eta Udaltzaingoari salaketak bialdu, ez omen dute jaramonik egiten.

X Bergara: atxiloketak

20 eta 19 urtetako bi gazte atxilotu zituen Bergarako Ertzaintzak, aldean 800 "dosi speed", 90 gramo hatxis eta milio erdi pezeta zeramatela. Bergarako epailearengana eraman ondoren, honek Martuteneko espetxera eramatea agindu zuen.

Atxiloketa hau Askagintza taldeak drogomenpekotasunaren prebentziorako antolatu duen aste kulturala hasi aurretik gertatu da.

T x a n d a k a

Gregoire abadea eta Jack ministraria


Grégoire-k eta Jack-ek ez zuten elkar ezagutu. (...) Abbé Henri Grégoire hura 1831n hil zen, 81 urte betetzen zituen urtean; baina istorio honetako Jack hori Miterrand-en gauko kultur Ministrari aurrerakoi eta dinamikoa denez, Jack Lang jauna, alegia, ezin izan zuten Parisen batak bestea-rekin topo egin.

Baina Lang Ministrariak izan du aukerarik Grégoire-ren historia intelektuak eta politikoa ezagutzeko, aukeraz probetxatu ez bada ere. Hori dela eta, aurtengo urtea hastearekin batera eta Iraultza Frantsesaren bigarren mendeurrenaren ospakizunak sustatzeko, Grégoire Abade iraultzailearen berri ematen saiatu zen jaun Ministraria. Ohartzekoa da Lang-ek nola aurkeztu zigun elizgizon politikari hura. (...)

Grégoire-ren curriculum intelektual eta politikoa gizatasun sozialki irekia eta aurrerazalea nabaria da. Juduen eskubideak defendatuz hasi zuen bere zeregin intelektual publikoa (1788). (...)

Artean Iraultza jaio gabe zegoen, baina Abadeak XVIII. mendeko Argien gogoeta libreak bere kabuz heldu zion. Hori, bere meritua zuen.

Izan ere, Jack Lang-ek xehetasun handi bat ahanzi edo isildu zuen: Grégoire Abadea izan ere, Frantziako Errepublikaren barrutian "Patois" guztiak ezabatzeko eta hizkuntza frantsesaren erabilpena orokortzeko ekinbideei eta premiari bu-



Joseba Intxausti*

ruzko Txostena (1793) idatzi zuena. Agiri hau Konbentzio nazionalari aurkeztu zitzaion, eta aurreko bi urteetan herrialde ezberdinetan egindako inkesta politiko zabal baten fruitua zen. Inkestaren, Txostenaren eta ondoko hiz-

kuntz erabakien aita politikoa Grégoire izan zen, ongi frogatua dagoenaren arabera.

Hexagono-ko beste hizkuntzak eta dialektuak deuseztatzea aurreramendu-eginkizun bat bezala ulertu zuen politikari honek: "Honela, hogeitamar patois-ekin, Babel dorreko egoera hartan gaudu, lengoaiari dagokionean; askatasunarekikoetan, nazioen abangoardian gauden bitartean". Giziadiari hizkuntza bakar bat ematea zen helmuga politiko-linguistikoa berria.

Politikari honen arrastotan joan zen, geroztik, Hexagonoan bospasei hizkuntzen (euskara, bretoina, alemana, okzitaniera ...) eta dialektuen aurkako politika ofiziala. Erromak Galian latina ezarri zuenetik hona ez da Frantziako Grégoire-ren ideiekin egindako iraultza etno-linguistikoa tamainako besterik ezagutu. Jakina denez, hondamendia ez da makala izan.

Hala ere, Frantziako oroimen historiko ofizialak nahiago du, nonbait, hori isilean gorde. Baita Kultur Ministrariak ere.

(* JAKINen sortzailea.

**Agirre
Miota
Gestoria**
Zerga deklarazioak
Erdiko kale 28, 2.
Tfnoa: 79 34 33

Memesa
Arrasate
79 42 22

Impi gozoak
Gosariak eta gozokiak
Zarugalde, 8
Tfnoa: 79 63 34

Telebisitak. Oraingo honetan telebistakoak izan ditugu bisitan. France 3 Aquitaine, RTP Oporto eta TVE Bilbao 6 programatako seriea egiten ari dira, euren lurraldeei buruz 93ko Europari begira, "93ko Europa lurraldeen Europa izango da eta" Jaime del Castillo, aurkezlearen hitzetan. Dagoeneko bi programa eman dituzte. Hirugarrena, ekonomiaz arduratuko da. Horregatik etorri dira Ikerlan, Lan Kide Aurrezkoa eta Fagor ikustera. Ikusi nahi duzuenok eragin botoiari Martxoaren 22an arratsaldeko 1:30etan TVE-2an.



Hiru herritako telebisten bisita

Aste kulturala Institutoan. Aste honetan Institutoan ekintza kultural bereziak antolatu dituzte. Besteak beste, sexualitate, parasikologia, Nikaragua... eta barri buruzko hitzaldiak eta ikasle beraiek ataratakoen argazki-erakusketa izan dira. Aste osoan



Keparen lan bat

Kepa Landaluzeren eskulturak ikusgai egon dira egun batzuetan, triste samar itxura duen patio honek arte-gune espontaneoak bihurtuz.



Aitor Sarasua irabazle Leintz Bailarako Bertso-Txapelketan

Joan zen larunbatean, Otsailak 25, ospatu zen Apotzagako "Auzo-etxe"n Leintz Bailarako X. Bertso-Txapelketaren azken saioa. Berrehun lagunetik gora izan diren lagunarteko afariaren ondoren 6 bertsolarik neurtu dituzte beren indarrak: Beitia, Danel Goikolea, Jon Iñaki Isazealaia, Maximo Letona, Iñaki Plazaola eta Aitor

Sarasua.

Aurtengo honetan Aitor Sarasuak jantzi du azken urteetan bere anai Jonek eramane izan duen txapela, bigarren Jon Iñaki Isazealaia izanik.

izen propioak

Karmelo Uribarren, 27, Arrasateko udal itzultzaile berria. Erdu Euskaltegian lau urtez irakasten aritu ostean, Eusko Jaurlaritzako trebatzailea izan da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailean. Historiako lizentziatura amaitzeaz duelarik, UNEDen ere ematen du eskola EGA mailan.

German Kortabarria, 39, ELAn izan diren azken aldaketan ondorioz, ofatiarra sindikatu exekutibarako izendatu dute. Donostian Zuzenbidea ikasi ondoren, ELA konfederakundearen arduradun juridikoa izan da hainbat urtez. Orain prentsa eta formazio arduradun berria dugu, hau da, Elorrieta berak utzitako kargua.

Patxi Yarza, 43, Apirilaren 14arte gutxienez -hauteskunde berriak egingo dira orduan-, "Mondra" futbol taldeko iharduneko lehendakaria, Pablo Zubillaga ordezkaturik. Patxi badu eskarmen-turik zeregin hauetan, beroi izan zen eta, Umezaintzaren lehen presidentea eta Fagor Klimako batzorde zuzentzailearen oraingo lehendakaria.

Andoni Sagarna, 41, Ikerlanceko sortzailetariko, Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzorde-rako izendatu berria dute. Andoni Eskola Politeknikoko irakasle izana da. Orain UZEIn ari da lanean eta Elhuyar Zientzia Elkartearen lehendakari da.

Joserra Gartzia, 35, idazle legazpiarrak "Dena dela" poesia liburua argitaratu du oraintsu Baroja Argitaletxean. Joserra ezaguna dugu Mondragoen, lau urtez ikastolako irakasle izan bait genuen. Alemanian, Tolosako ikastolan eta Euskadi Irratian bere arrastoa utzi ondoren, orain ETB1eko "Hitzetik hortzera" programaren zuzendaria da.

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56

UME-ZAINTZA HAURRESKOLA

89-90 ikasturterako matrikula epea Martxoak 1etik Martxoak 31rarte irekita egongo da.

Inskripzio inpresoa helbide honetan J. L. Iñarra 30, Tfnoa 79 01 02 Goizez 9etatik 12,30etara eta arratsaldeaz 2,30 etatik 4etara.

Txirotasuna gure atarian

Gure inguruko hiri eta herri handietara joanez gero, azken urte hauetan gero eta eskale gehiago dagoela konturatzeko ez dago begi oso argirik eduki beharrik. Arrasaten egoera badirudi ez dela horren larria, baina ba al dago gure artean txirotasun egoeran bizi den jenderik? Noizean behin agian norbait diru apurren bat eskatzera hurbiltzen zai-gulako edo bere jazkera dela eta, nor edo nor bere oinarrizko beharrak asetzeko adina diru ez duela konturatzen gara, baina besterik ez.



Jende askok ez du bere erosketak egiteko aina diru

Beste batzu baino hobeto

Egun, Arrasaten, Karitasek luzatzen dituen dirulaguntzen arabera hirurogeiren bat familia txirotasun egoeran bizi dela esan daiteke. Hau da, inolako diru-sarrerarik edo, diru-sarrera oso txikiak izanik, duintasunez bizi ahal izateko baliabiderik ez duten hirurogeiren bat familia dagoela esango dugu.

Kopuru hau erreala ez dela adierazi digute bai Karitasen bai Udaleko Ongizate Zerbitzuan, orain arte bertara hurbildu diren familiak bakarrik jasotzen bait dute dirulaguntzaren bat eta kopuru zehatza ez dago esaterik. Dena den, gure herria Gipuzkoako beste herri batzuekin konbaratuz gero askoz ere egoera hobean omen dago, aspaldi honetan zenbait enpresatan behin-behineko kontratazio ugari egon eta honek egoera zertxobait lasaitu egin du eta.

Txirotasun honen arrazoiak aztertzerakoan, langabezia eta ezjakintasuna azaltzen zaizkigu arrazoi nagusizat, berauei alkoholis-

moa eta azken aldi honetan drogaren arazoa gehitu behar diegularik. Gure artean, drogarena gero eta arazo larriagoa bihurtzen ari da askotan 5.000 pta. edo gehiago behar izaten duelarik jendeak eguneroko bere beharrak asetzeko, honen ondorioz, jateko eta jazteko aina diru jendeak izaten ez duela.

Ezjakintasunari buruz Karitasen

inmigrantez osatua dago txirotasun egoera honetan dagoen jendearen gehiengoa, bai bere kultura maila askotan txikiagoa delako, bai beren egoera salatzeko arazo gutxiago azaltzen dutelako. Puntu hau bai Karitasen bai Ongizate Zerbitzuan inolako zalantzarik gabe argitu digute, euskaldunen izaera desberdina dela esanik, lotsatiagoak eta itxiagoak omen dira, ondorioz beren egoera larria salatu eta laguntzaren bat eskatzen ez dutela. Adinaren arabera sailkapen bat egin nahian, denetik dagoela esango dugu, bai gazteak bai zaharrak, senarrarengandik bananduta bizi diren emakumeen egoera askotan benetan larria suertatuz, senarrek dagokien pensioa ematen ez diete eta.

Zer nolako laguntzak eskaintzen zaizkie

Orain arte behartsuei laguntzeko zerbait egin duten erakundeak Karitas eta Diputazioa ditugu.

Karitasek 33.000 pezeta inguruko dirulaguntza luzatzen die paroan eta inolako diru-sarrerarik ez duten familiei. Kopuru hau familia osatzen duten pertsonen arabera handituz doa. Diru kopuru hori baino txikiagoa den diru sa-

Karitasek luzatzen dituen dirulaguntzen arabera hirurogeiren bat familia bizi da Arrasaten txirotasun egoeran

honako hau azaldu digute "jendeak askotan ez du jakiten dirua nola administratu, behin suertatu zitzaigun familia batean senarrak, lantegia itxi zutela eta, milioi bi kobratu zuela. Diru guzti hori sukალdea konpontzen gastatu zuten hurrengo hilabeteetan jateko adina ez zutelarik."

Giza-taldeak aztertzerakoan

rrerarik izanez gero familian "diferentzia" ordaintzen zaie. Une honetan, Karitasen ez dago kopuru osoa jasotzen duen familiarik egoera hobetu denaren seinale argia. Soldata deitu daitekeen diru laguntza honetaz gain, arropak ematen zaizkio eskatzen dituen edonori eta etxebizitza edo

pisuaren alokairua ere ordaindu izan dute, etxerik izan ezean pensioa ordaintzeko dirua ematen zaielarik.

Diputazioak, orain arte luzatu dituen laguntzak, oso urriak izan direla azaldu digu Udaleko gizarte laguntzaileak.

Berauek (pilatu-tako) zorrak ordaintzeko etxearen alokairua edo janari zorrak edo antzekoak ordaintzeko luzatu izan dira. Behar larriren bat betetzeko, hau da, dentista edo sendabide luzeak ordaintzeko ere luzatu izan dira l a g u n t z a k .

Arrasaten horrelako hamabiren bat laguntza luzatu dira aurtan, oso kopuru txikia biztanle kopurua kontutan izanda.

Laguntza duin eta handiagoa

Diputazioak aurtan egoera larrian bizi diren familien egoera hobetzeko asmoz, txirotasunari laguntzeko plana eratu du. Plan honen arabera jende ugari soldata soziala jaso ahal izango du, helburu hori betetzeko asmoz 1.000 milioitako aurrekontua duelarik Diputazioak. soldata sozial hau familiako 30.000 mila pta.koa izango da, pertsona bakoitzeko bost mila pta. gehitzen zaiolarik; hala ere, oraindik pertsona batek familia osa dezakeen zehaztu gabe dago. Pertsona bakarreko familiek, soldata hau jaso ahal izan ezean beraiekiko marginazioa sortu-

ko litzateke, bakarrik egotearen ondorioz ezingo bait lukete diru hori jaso. Soldata sozial hau jaso ahal izateko Euskal Herrian hiru urtez bizi izatea, familia, laguntza eskatu baino sei hilabete lehenago eratua



Askotan jendeak alokairuak ordaintzeko behar izaten ditu laguntzak

egotea eta planaren arabera dagoen diru-kopurua baino diru sarrera txikiagoak izatea da beharrezko.

Dena den, kontraprestazioak ere eskatuko zaizkie soldata jasotzen dutenei. INEMean izena ematea, kurtsiloetara joatea eta "autoayuda"

gutxi inauguratu den helduen heziketarako zentroak eman beharko die irtenbidea. Soldata sozial hau dela eta Udaletxeko gizarte laguntzailearen eritziz egoera larrian benetan zenbat jende bizi den jakin ahal izango da, jende ugari animatuko da eta soldata eskatzera.

Aurreko guztia irakurri ondoren, badirudi Arrasaten jendea nahiko egoera onean bizi dela, baina kontutan izan behar dugu, behartsutzat hartzeko inolako diru sarrerarik edo hogeitamabost mila pezeta baino diru gehiago ez dela jaso behar. Benetan, diru kopuru txikia gaur

egun bizitzeko behar den dirua kontutan izaten badugu, aurtan adibidez IPCa 5,8an igo da, pensioak batz bestea %4an, pensio hauetako asko 44.000 pta ingurukoak izanik, garbi ikusenez geroz geroz pensio hauek igo egin beharrean

Diputazioak aurtan egoera larrian bizi direnei soldata soziala luzatuko die. Soldata sozial hau 31.000ptakoa izango da

delako programetan parte hartzea.

Eskakizun hauek arazo bihurtu daitezke, egoera larri honetan dagoen jende askok ez bait daki ez irakurtzen ez idazten eta agian duela

jaitsi egin direla edo behintzat beren erosteko ahalbidea jaitsi egin dela eta beraz, okertzeko beldurrik gabe esan daiteke gaur egun jende ugari dagoela bizitzeko adina ez duena.



URONDO elektrizitatea.

Nafarroako etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

PRONOVIAS DOCHY



**Jaun-
-Hartzeak**

Independencia
20
Gasteiz

Famauen ahotik



"...hasi jatek tar-tar-tar eta kieto parau..."

Berastegin, ollasko artien

Gurasuek ezkondu eta 9 hillebetera jaixo nitzuan, etxien lehenengue. Handik 14 hillebetera beste bi ein jittuen, birkixek. Hoge-tahiru hillebetien 3 umekin geratu zittuan eta ni amamana, hiru larrei ziela ta.

Denpora pasa nebillenien, amamak ollaskuendako txixerak ataraten bielketan nindduan. Hau etxien jateko be edarra dok pentsau eta noixien behin, urreraketan zanen bat jo buruen eta garbi, bestela Tolosara saltzen erueten jittuan ta.

Txikitten babaparrie baño mehiae nitzuan, fraka metzetan hankak eta burue besteik ez. Mutiekuek "ardi zaharra" deiketan justien txanka mehiek neukelako, eta maixuek pe eskolara berandu ninddoienien, han bajatok "berant ardi zaharra".

Mundrauen, ume karriuen

Hamalau urteaz etorri nitzuan Mundraure, profesionalera.

Gauza gutxi ein naixuan nik han. Goixek hartute ibili nitzuan ta pasaportie emun justien. Ez nindduela bier. Neure girotxuen gustora jarraituko naixuan bañe lanien hasi bier. Txofertzarako aukerie izen naixuan ta harrezkero hementxe.

JUANITO SAIZAR

"Umiei autobusien sartu ahala zertxobait esan eta aurpegixe alaittu eitten jakiek".

FITXA TEKNIKUE

IZENA: Juan Damasceno Saizar

"Juanito txoferra"

JAIXO: Berastegiko Etxoinberrin.

1953-III-26xen

NEURRIXEK 12,25 12m (autobusenak, eh!)

KABIRIE 56 plaza, biejeiko.

Umiek jittuat gogokuen. Euren nortasune emutie inportantie dok. Nik beti izenaz deiketan jutziat, ez "ulixen semie", ez apellidoik eta ez antzekoik. Goixien be autobusien sartu ahala danei zertxobait esan; erdi-lo datorrenai be aurpegixe alaittu eitten jakok.

Kurtzetan, autobusik karriau ezindde

Eskola profesionalekuek Aramaixon itxi eta baninddoian Bitorri-xera kurtzetan gora ta Marixeka parien kontrola. Han jaukien Aspe Aramaixokue. Niri paso emun justien ta hara Billerleko Miradorera allegaukeran hasi jatek autobusoi tar-tar-tar eta kieto parau. Zer ein? Hasi nok auto-stop eitten ta hor jatozak txapel-okerrok: ¿Que le pasa? ¿Le llevamos? Neure artien, neu sartzen ez panok eurek sartuko naixuek eta onena sartzie juat. Eruen naixuek Billerlera eta Astola taberna parien itxi naixuek. Tabernie itxitte jauan bañe mutilek urten juan eta esan nutzan telefonotik deittu neikien. Ezetz itxitte auela. Nik, telefonue zala bakarrik. Ezetz eta ezetz.

Harek ikusi nundik jatsi nitzen ta esango juan, hau be pikoletue dok. Kabinara juen bier.

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

Bai jauna, bilinguismua aurrera doiala, eta zelako martxan gaiñera. Joan dan udan plaiarako autobusak jarri zittuen eta ikusi zein kartel jarri eben PESako autobus estazifuan:

AUTOBUSES MAÑANA Y TARDE

AUTOBUSAK BIHAR ETA BERANDU

■ ■ ■ ■

Bazan beñi beti jaleo billa ibiltzen zen kerten majadero bat, aritza bezelakoxe mutikotia bera. Behiñ tabernan zeuan mutil txiki, argal, baketsu batekin sartu zan:

- Hi, aizkora-mutur, hik begiratu egin dostak. Kabuen zortzi! Hori etxotsat nere amari be permititzen!

- Nik hiri begiratu ...

- Bai, urten kanpora, bi ostixa emun bihar dostat eta.

- Bi ostixa? Hi ez hago burutik sano, lenenguakin lurrian najaok eta.

■ ■ ■ ■

Beste behin lengo kertena sartu zan beste taberna baten eta galdetu eban fuerte:

- Zein da hemen Agirre?

Jende arteko batek eskua jasuz esan eban:

- Neu, zer ba?

Mutila hurreratu eta muturreko batekin lurrian luze laga eban.

Baina jentia, txokauta, gizona barrez zeuala konturatu zan.

- Emon dosken muturrekuakin eta barrez? hi ez hago sano.

- Sakatu jotsat edarra.

- Zer ba?

- Ni enok Agirre, ni Arregi nok.

Juan Martin Elexpuru



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerías, 23

ARRASATE Tfnoa: 79 46 62



ERAÑA

AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzeziño kalea 4 - behea

Tfnoa: 79 83 95

ARRASATE



JESUS ELKORO

ELEKTROTEKNIKA

TB - HIFI - BIDEO

Tfnoa: 791886

ARRASATE



Martxoak 2, Osteguna. Gaueko 8,30, Amaia Zineman, *Ernesto Telleria*
eibartarren **ESKORPION** pelikularen aurkezpena euskaraz. Aurkezpenean eta ondorengo elkarrizketan partaide izango dira filmaren zuzendaria eta ekoizlea.

Martxoak 4, Larunbata. Gaueko 8etan, Joan Batista Deunaren Parrokian,
DONOSTIAKO ORFEOIAREN Kontzertua.

Martxoak 9, Osteguna. Gaueko 8,30etan, Amaia Zineman, BANDERA BELTZA
Pelikula euskaraz.

Martxoak 11, Larunbata. Gaueko 10,30etan, Amaia Zineman, *Elgoibarreko Taula*
pada Taldearen ardurapean, **ETA ETXEKOAK ZER MODUZ?** antzeslanaren aurkezpena.

Martxoak 18, Larunbata. Arratsaldeko 6etan, Amaia Zineman, Donostiako SAN
IGNAZIO ANTZERTI MUSIKAL Taldearen eskutik, **EDURNEZURI** Musikalaren aurkezpena. Obra hau haurrek interpretatzen badute ere, pertsona helduentzat gomendagarria da.

EUSKO JAURLARITZA
KULTURA ETA TURISMO SAILA



CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREKIA

ARRASATEKO UDALA

Otarrea, zumea, kainabera edo zumitzak artekatuz egiten den ontzikia.

Erosketako otarrea. Produktu freskuez, oro har janariez eta drogueria-ko produktuez osatzen da, hau da; Kontsumitzaileak sarri erosten ditue-
nez eta pertsonen eguneroko gastua-
ren muina osatzen dutenez.

HEMEN BAI

EROSKIn eguneroko erosketa-otarrea,
merkatuko merkeena duzu ezbarik gabe.



GABINETE MEDIKOA

**Medikuntza
Digestibidea
Endoskopia
Ekografia
Analisia**

Ferrerias, 1.
Tfnoa: 79 15 08

LARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN**


Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

PRONOVIAS DOCHY



Independencia 20
GASTEIZ

ARQUERO
Anaiak
ERAIKUNTZAK



Araba Etorbidea 40, Behea
Tfnoa 79 01 51 Aretxabaleta

MARENAZA
Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkaia, 1 Tfnoa: 79 08 07
Aretxabaleta

“ Txomin bezala, gu ere negoziazioaren alde gaude eta bakea nahi dugu, baina gure herriaren eskubideak errespetatzen baldin badira”.

(Xabier Zubizarreta, Arrasateko alkateak, Txomin Iturberen omenez, Zaldibarko pilotalekuan izandako mitinean)

“ (Zaldibar pilotalekuan) ETA goratzen aritu zen jendea, KAS altematiba, amnistia, presoan askatasuna eta errefuxiatuen alde ohiuka. Ez Goardia Zibila ezta polizia ere ez ziren agertu egun osoan zehar Gipuzkoako herri horretan, eta ez zuten kontrolik ere ezarri sarbideetan. Atzoko ekitaldiak HBren propaganda-kanpaina bizi bati eman zion amaiera, kanpainak 2 astez iraun duelarik ETArekiko negoziazioa politikoa bultzatzeko”.

(Victoriano Ruiz de Azua kazetariak Madrilgo “El Pais” egunkarian)

“Ezin ditugu buruak engainatu, bide luze eta bihurria- ren aurrean gaude eta. Lehenengo, kontaktu-fasea izan zen eta orain elkarrizketa-fasean gaude. Baina ezin dugu esan, gezurretan ez bada, negoziazio-negoziatio proze- zua hasita dagoenik. Hitz egiten da politikaz eta elkarriz- ketarik badago, baina negoziatioa oraindik urruti dago”.

(Txema Montero, HBko eurodiputatuak Zaldi- barko pilotalekuan)

“ Txomin Iturbe 1987ko Otsailaren 25ean hil zen buruan hartutako kolpez Alger inguruko entrenamendu- zelai batean pista amerikarrek ariketa bat egiten ari zela (...). Algeriako arduradun politiko eta militarrek, bertsio ofiziala onartzera behartu zituzten ETA eta HB, bestela Alger-en bizi ziren, eta diren, gainerako etarrak kanpora- tu beharra ekarriko bait zuen istiluak ”.

(Melchor Miralles, Ricardo Arques eta Car- men gurrutxaga kazetariak Madrilgo “Diario 16” egunkarian)

Zein ondorio ekarri- ko dio Arrasateko herriari tren- bertatik pasatzeak?

Beno, esan behar da zalantzarik gabe trenak Arrasatek pasatzea he- rriarentzat onuragarri gertatuko dela. Proiektua atlantikoko ardatzaren barruan planteatu behar da. Euskal Herrian Y egitea pentsatu zen, gero- ra N bihur daitekena. Euskal Herria Europarekin lotuko du eta bailararako oso ona izango da. Onura- rik handiena industriei eta bidaiarien joan etorri- ekarriko die. Herria, infraestruturaz garrantzitsu batez omituko da, kontutan izanik tren- bertatik garraio- rik merkeena eta azkarrena bidaia luzeetarako. Zor- tea izan dugu tren ibilbideen gurutzabidea Arrasaten kokatzeaz, dena den, oraindik zehaztugabe dago non kokatuko den gurutzabide hori eta horrez gain ez dakigu hemen tren-geltokia jarriko duten ala ez.

Konpondu beharreko arazo bat ere badago, gelto- ki hori Santa Ageda inguruan kokatzeko asmoa dago, bertara joateko errepideak trafiko gehitze ika- ragarri bat jasango duelarik. Beraz, kamioi eta berta- ra joango litzatekeen trafikoa hori kanalizatzeko beste errepide bat egin beharko litzateke, arazo izan daitekena, inguru hori mendiz inguratua bait dago.

Bestalde, Elorrioren kokatuko balitz ere ez genuke tren- bertatik pasatzeak izango.

Eragin ekonomiko handi suposa dezake indus- triei esportaziorako ateak zabaltzen dizkie eta, baina ez da bakarrik Arrasaterentzat oso garrantzitsua De- ba Garai osoarentzat baizik. Mankomunidade gisa a- gian zerbait egin beharko genuke tren-geltoki hori lortzeko.

*Xabier Zubizarreta
Arrasateko Alkatea*



FAGOR




TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA


Arrasate

u
t
o
e
s
k
o
l
a



Klase
praktiko
eta
teorikoak

Olarte, 30
79 89 89



lau maisu europear

Maria MONTESSORI
Chiaravalle (Italia) 1870
Noordwijk (Holanda) 1952

Ovide DECROLY
Ronse 1871
Bruxelles-Brussel 1932 (Belgika)

Jean PIAGET
Neuchatel 1896
Geneva 1980 (Suitza)

Célestin FREINET
Gars 1896
Vence 1966 (Frantzia)

ARRASATEN,
MONTERROI KULTUR ETXEAN
MARTXOAK 2TIK 10ERA

Martxoak 3, Ostirala, 7,30etan **HITZALDIA** “*Renovación pedagógica herencia y creación*”
MARTA MATA. Bartzelonako Udaleko Hezkuntz Batzordeburu.

Martxoak 7, Asteartea, 7etan **ESPERIENTZIA** “Ezagupenaren eraikuntza esperientzia bat”
(Piaget). **ANTZUOLAKO ESKOLAKO IRAKASLEAK**

Martxoak 8, Asteazkena, 7etan **ESPERIENTZIA** “*FREINET-EUSKADI inguruaren ezagutza*”.
HERNANIKO LANGILE Ikastolaren praktika. **ELI IGARZABAL**
eta **ITZIAR EGIGUREN**

Martxoak 9, Osteguna, 7etan **HITZALDIA** “*Berehala datorren ERREFORMAREN oinarri pedagogikoak*”
LONTXO OIHARTZABAL (Donostiako Elizbarrutiko Irakasle Eskolako Irakaslea)

Antolatzaileak:

Bartzelonako Institut Municipal d'Educacio eta Eskoriatzako IRAKASLE ESKOLA

Babeslea:

ARRASATEKO UDALA

Blanca Roncal "Ospitalak oso zerbitzu duina eskaini izan du Arrasatearrei"

Aspaldi honetan Deba Garaiko Ospitaleak zeresan ugari sortu du, gure bailarak behar duen zerbitzutarako ez dagoela behar bezala prestatua, bere kokagunea egokiena ez dela etab. Gaur egun Blanca Roncal bertako zuzendari dugu, inolako eragozpenik gabe ospitalearen nondik norakoez hitz egiteko prest aurkitu genuen bera.

— Arrasate Press: Zein da momentu honetan Arrasaten dagoen ospitalearen eginbeharra?

— Blanca: Arrasateko ospitalearen zeregina Arabako osasun esparruearen berrantolaketa planak zehazten du. Berrantolaketa honen arabera Arrasateko Ospitalea Deba Garaia oinarritzko zerbitzuak eskainiko dio izango da, pediatria, tokoginekologia, kirurgia etab. alegia. Momentu honetan zerbitzu hauek badiugu, baina zenbait kasutan ez behar bezala hornituak. Giza baliabideak, badiugu baina lehen genuen antolaketaren eraginez bailaran zehar sakabanatuak aurkituko ditugu. Antolaketa desberdin horren ondorioz, Arrasateko Ospitaleari dagozkion giza-errekurtso batzuek Eibarraren ditugu Arrasatera noiz etorriko zain.

Gaur egun gure ospitaleak atentzio berezituko zerbitzuak berreskuratzeko ahaleginetan dihardu, bailarako sendabide berezitu guztiaz jabetuko da eta berauek koordinatzeko lanak bere gain hartuko ditu.

Oinarritzko sendabidea herrieta-ko anbulategietan eskainiko da.

— Baina baliabide guzti horiek leku batetan batzea gaisoarentzat ona al da?

— Gure bailara ez da oso handia eta honera etortzeko egin behar diren bidaiak ez dira luzeak.

Zerbitzu batzuk nahita nahi ez bateratuak behar dute egon bai sendagileek elkarlanean aritu behar dutelako bai gaisoen kasu desberdinak elkarren artean konparatu eta atentzio hobea eskaini ahal izateko. Dena dela, zerbitzu batzuek ospitale-herrietara desplazatzen ditugu.

— Aspaldi honetan, ospitalearen eraikuntzaren inguruan gauza

ugari ari gara entzuten, ospitale berri baten beharra ere aipatu izan da, zuk zer esan diezagukezu gai honi buruz?

— Beno, bai eraikuntzak arazo eta eskasia batzuek baditu, eraldatu eta handitu beharrean aurkitzen da. Homidura teknologikoaren beharrean gaude, erradiologia zerbitzua adibidez gaur egungo beharrei erantzuteko txiki geratu zaigu.

Bestalde, ospitalizazioa txiki geratu zaigu, ez dugu ohe gehiagoren beharrik, baina oheak inguruan behar duen lekua orain lehen baino zabalagoa da, inguruan zaintza berezietarako aparailuak egokitu ahal izateko, beraz gelak eraldatu egin beharko ditugu.

Osakidetzak anbulategia eta ospitalea batu nahi ditu behar guzti horiei erantzun ahal izateko.

Guk ospitale gisa betebeharren ikerketa egin eta horren arabera

beharren proposamena aurkeztu dugu, plan funtzional bat. Osasun zerbitzuen azterketa bukatu dugu eta arki-

tekturaren emaitzen zain gaude. Plan hori Udal ei eta Mankomunitateari aurkeztuko diegu.

— Bestalde, eraikuntzaren beharrak kontutan izateke ospitalearen kokagunea ere ona ez dela esan ohi da...

— Industrialde batetan kokaturik dago, baina garrantzia galtzen ari den industrialde batetan. Bertako industria batzuk bertatik alde egingo dute eta ez dut uste inguruan sortzen den hotsa esaten den bestekoa denik.

— Arrasateko Ospitaleak urtetan nahiko ospe txarra izan du, garaiko osasun egoerarekin bat zeterren ala benetan ospitalea egoera txarrean zegoen?

— Osasun-sare bi egotean batetik



Blanca Roncal

Insalud eta bestetik Lagun Aro, normala denez, Insalud-ek bere ospitaleak babesten zituen, jendea erakarri nahian, baina hala ere oso ospitale duina izan da. Gipuzkoan erresidentzia eta Arrasatekoa besterik ez zeuden eta hala ere oso zerbitzu duina eskaini izan die inguruko biztanleei. Sare biak bateratzean gaur egun hobeto hornituta dago, bai giza-baliabide aldetik, bai materiale aldetik.

Insalud-enak ez ziren beste ospitale batzuk ere egoera berean aurkitu izan dira.

— Aste honetan bertan, ospitaleko behin-behineko langileek beren egoera salatuz kaleratu duten gutuna irakurri ahal izan dugu. horren aurrean zer esan daiteke?

— Esan behar da iaz 139 lagun genituela plantilan eta aurten 188, beraz neurri handi batean handitu da. Bestalde Osakidetza da lanpostu berriak sortzeko ahalmena duena. Aurten Osakidetza 350 lanpostu sortu ditu, berauetatik gehiengoa Irungo ospitale berrirako izango dira eta besteak kanpoko zerbitzuak betetzeko.

Aldi batetarako kontratatuta dauden langileak lanpostu fijoak nahi izatea normala da, baina ezin zaie lanpostu hori ziurtatu. Administrazio publikoan lanpostu bat sortzen denean jende guztiak du azterketa egiteko eskubidea. Behin behineko langileei egin duten lanaren arabera puntuak emango zaizkie baina ezin zaie lanpostua ziurtatu, aldi baterako lan hori lortzeko aukera izan ez dutenak diskriminatzea izango bait litzateke hori egitea.

Gaur egun gure ospitaleak atentzio berezitu zerbitzuak berreskuratzeko ahaleginetan dihardu



Esku-baloia, Arrasate Kirolak-ek 26 Ormaiztegi 19

Partidu bikaina igandean "Arrasate Kirolak"ek jokatuakoa. Lehenengo zatia 13-8 bukatu zen etxekoan alde; eta bigarren zatian, Pitxi Herrero teoriarik ordezkoak diren aurrelariak zelairatu arren, etxekoek kantxaren jaun eta jabe izaten jarraitu zuten. Publikoaren pozarako, gainera, Aitorrek bi penalty gelditu zituen.

Onenen artean aipamen berezia merezi dute Zurditok eta Borbollak.


Honako hau izan zen jokalarien zerrenda: Zurdito eta Aitor, aurrelariak; Jesus, Moraleja (2 puntu); Bunder (2), Borbolla (11), Txapu, Ramon (2), Juanmari (3), Ricardo (4), Olivenza (2), eta Julian.



Pedruskok Ligaren 1. Fasea bukatu

Pedruskok 2ko enpateaz Huracan-aren kontra bukatu du Ligaren lehen fasea. Azkenengo partiduetan, emaitza eta errendimendu aldetik badirudi ekipoa "batxe" baten sartu dela.

Fernando Aguriondoren mutilek laugarren postuan, 27 puntu eta 5 positiborekin amaitu dute lehen fase hau. Orain 3. Dibisiora igotzeko ligila jokatu beharko dute. Ligila honetan, sailkapeneko lehenengo sei taldeak neurtuko dituzte beren indarrak: Pedrusko, Alaves, Abetxuko, San Ignazio, Zaramaga eta Izarra Gorri, hain zuzen ere. Hauetatik, lehenak, automatikoki 3. Dibisiora igoko luke; bigarrenak, aldiz, Gipuzkoa eta Bizkaikoekin promozioa jokatu beharko luke.



HIRU S.A MEKANIZAZIOAK

- * Doitasunezko mekanizazioa plano eta langilen arabera
 - * Fresatzeko makinak
 - * Zenbakizko kontrola
 - * Mekanizazio - zentruak
 - * Tornuak
- * Artezteko makinak, etab.

Zaldispe kalea, 10 ARRASATE Tfnoak:79 67 80 79 05 61

Posta kutxa 95 .Telefax:79 80 97

podiuma

“Pitxi” Herrero, eskubaloiko entrenatzailea

Kiroldegia egin zenean, duela 12 urte, hasi zen esku-baloia praktikatzen. Bi urtez ibili zen jokalaria bezala, ondoren entrenatzailea izatera pasatzeko: lehenengo gazte mailan, eta oraingo hau, bere 6. denboraldia da nagusiekin. Baina Jesus Mari kirolzale bat da, zentsu zabalean.

Abuztutik hasita, urtero ordu mordoza sartzan ditu entrenatzen; batzutan aspertu egiten dela ere aitortzen digu. *“Denboraldia aurretik egiten dituzun planak ez dute ezertarako balio; lan-arazoak direla eta, inoiz ez duzulako lortzen jokalaria guztiak batera entrenatzea. Afizionatu-mailako guztiok daukagun arazoa da”.*

Denboraldi honi dagokionez, ekipoa nahiko ondo dabil, *“denboraldia hasi baino lehena-go, helburutzat 22 puntu lortzea hartu genuen kategoria aseguratzeke; dagoeneko, 10 partidu falta direnean, 16 puntu ditugu. Dena den, gorago egon beharko ginateke, anbizio faltagatik galdu ditugu hainbat partidu”.* Bere taldea definitzerakoan, “Pitxi”k *“defentsa ona eta eraso eskasa dugu”* adierazten du. “Arrasate Kirolak” 2. Dibisio Nazionalean aritzen da. Esku-Baloian ematen den egiturarekin, futboleko 2. B-arekin konparatu daiteke.

Arrasaten, bestalde, 5 talde dago. Guztira, 83 jokalaria federaturik. Diru aldetik, ere, defizitarik ez dutenez, esan daiteke nahiko ondo daudela.



J. M. Herrero urte askotan kirol munduan sartuta

Jesus Mari AUKEAko klubean ordezkarietako bat da, hurrengo Maiatzean bere betebeharra amaituko duelarik. Gai honetaz, *“sorpresa asko, bai onak bai txarrak izan dira. Aurrekontuak aprobaten direnean ikusiko dugu AUKEAk fruituak ematen dituen ala ez. Gainera, estatutoen arabera, aurten AUKEAri dagokio kontuen gestioa egitea. Udala aldetik, kirolari buruzko ezezagutza handia zegoela nabaria da. Udalera informazio eta eskakizun multzoa (oso ondo landutako proiektuen bidez) sartzen ari da, eta bere burua desbordaturik ikusi du”.*

Kirol-arloan “boom” bat izaten ari dela gizartearen ukaezina da, ea nola ikusten duen gaia galdetu diogu, *“bai, baina honek bi alde dauka: kirola, gero eta gehiago aisia bezala hartzen da, eta alor honetan ematen ari da boom hori. Orain, erreztasun eta aukera gehiago dagoenez kirola praktikatzeke, jendeak ez du ikusten kluba eratzeke beharrik, eta klubak ahulduz doaz. Inork ez du hartu nahi, haur edo gazte talde bat laguntzeko erresponstabilitaterik”.*

Eskoriatza, Euskadiko Sokatira Txapelketara

640 kiloko kategorian klasifikazio-probak izan ziren larunbatean Arabako Ondategi herrian. eskoriatzarrek, hamar talderen artean, bigarren postua lortu zuten, Goierriko taldearen atzetik.

Oñatikoek, berriz, bedeatzigarren postuarekin konformatu behar izan zuten.

Oñatiko esku-baloi gazte-taldeak iguera fasea jokatu

Azkenengo partidua 24-6 Antiguotarren kontra irabazi ondoren, eta bi partidu falta direnean, Oñatiko taldeak “Euskadiko Liga”ra igotzeko ligila jokatu du. Zorionak Etxebek entrenatutako gazteei.

Arrasateko pilotariak, laugarren garaipena

Deba Arroko laugarren ihardunaldian arrasatearrek laugarren garaipena lortu zuten: UDA 0- Arrasate 4.

Alebin mailan:

Lizarralde-Exxabek, 11

Etxeberriak-Osinagak, 18.

Infantil mailan:

Bengoak-Goikoetxeak, 8

Igor Gonzalezek-Lordi Zuazubiskarrek, 18.

Gazte mailan

Errastik-Erafiak, 14

Markosek-Kortak, 22.

Afizionatu mailan:

Uribetxebarriak-Sasiainek, 7

Juantzuk-Kortak, 22.


Denborapasen soluzioak

Esatera zaharrak, zaldiz

“Oinezkorik nahi ez eta zaldizkorik etorri ez”

Bertako hitz ahaztuak

Kataila



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11

KIROLDEGI

Jatetxea


Eguneko menua

eta

karta

Musakola Auzoa. 79 82 31

Laser izpia gure artean hedatuz



Aukera ugari ematen ditu laser makinak

Gutariko askok Laser-az hitz egiten entzuten duenean, fikziozko filmeetan ikusita dauzkagun laserrak dakartzagu gogora, aldiz, laserra gure inguruetako lantegietan indarrez sartzen ari den teknologia dugu, industrietako zenbait lanetan ekar ditzakeen abantailak direla eta. Zertxobait jakin asmoz, Aretxabaletako Laser-Melis enpresara hurbildu gara.

Laser-a berez, generadore batetan sortutako uhin elektromagnetikoa dugu, generadore hau Melis-en kasuan CO2 gasez osatua

dago, generadorean pilatutako gasak deskarga elektriko batzuren bidez exzitatatu (kitzikatu) egiten da, ondorioz laser-a lortuz. Uhin elektromagnetiko hau puntu batetan fokalizatzean puntu horretan energia ugari pilatuko da, guk eman nahi diogun erabilerarako baliogarri gertatuko zaiguna. Laser uhina ikustezina dugu eta lanean

non ari garen zehatz mehatz jakin ahal izateko Elio-Neon uhin gorri batez lagundurik joaten da. Laser-a enpresetan, mozketa-lan, soldadura eta tratamendu termikoetarako erabiltzen da nagusiki, punzonadorak eta moldeak ordezkatzeko ditzakeelarik.

Abantaila ezberdinak azaltzen dituzte ohizko makina erramientekin parekatuz gero: mozketan malgutasuna, fidagarritasuna, eta elementuarengan ez da inolako interakziorik sortzen energia gehitze soil bat delarik. Laser makina batek erabilera ezberdin ugari izan ditzake, kontrol nume-

rikoaren bidez makina programatuz gero eta edozein materialerengan lan egin daiteke, metala, plastikoa, portzelana etab. luze bat.

Laser-a sorgunetik langunera garraiatzeko ispiluak erabiliko ditugu, berauetan isladatuz nahi dugun norabidea eman diezaiogekularik ispiari.

Agian norbaitek pentsa lezake arriskutsua gerta daitekela, baina beste edozein makinetan lanean aritzen garenean bezala, behar diren seguritate neurriak betez gero ez da arriskugarri gertatzen.

Europar teknologia hau aspaldidanik erabilia bada ere. Arrasate inguruan orain dela hiru bat urte hasi dira erabiltzen eta dagoeneko bost laser ditugu lantegi ezberdinetan banatuak. Laser-a berez garestia dela esan behar, ondorioz bere errentagarritasuna ohizkoak ez diren bideetatik bilatu beharko da. Melisekoen arduradunen eritziz, laserra erabiltzen hasteak enpresetan lanean diharduen jendearen mentalitate aldaketa eskatzen du.

MENSAJEROS 79 96 97

MIRW
WORLDWIDE COURIER

**HIRIBARNEKO, ESTATU MAILAKO
ETA NAZIOARTEKO
BIDALKETAK**

Informa zaitez
Deia doan: 900 300 400

Musika errodunaz, berriro



Ketama, Toumani Diabaté eta Danny Thompson

Fenomeno hau izendatzeko terminoa bera ere badirudi finkatu dela. Musika erroduna, etnikoa eta antzekoak erabili ondoren, azkenean -nola ez!- ingelesezko "world music" izena nagusitu da, fenomenoak duen esparru zabala adierazteko. Talking Heads taldearen buru den David Byrne-ren hitzetan "horrela deitzen diogu gure belarriak mundu osoko musikari zabaldu dizkiogula adierazteko". Bestalde, hasieran Afrika beltzeko musika izan bada mugidaren

muturra, musika arabiarak, Hego-Asiakoak, Ekialde-Europakoak edo Caribekoak gero eta presentzia handiagoa dute, aipatu zabalatasun hori egiaztatuz.

Uhin berri honen garrantziaz, berriz, ez dago zalantzarik. "El Pais" egunkariak duela hilabete batzuk gai honi "Músicas emergentes" izenpean eskainitako hamar orrialdeko gehigarrian irakur daitekeenez "inbasio bero honek unibertso musikala astindu egin du, zentzuak suspertuz". Edo Rock de Lux aldizkari musikalaren azken alean: "Batez ere Hirugarren Munduko artistez osatutako fronte musikal berria sortu da, zeinak musikaren grabitate-zentrua munduko beste latitude batzuetara mugierazi bait dezake. Bazen garaia!". Edota aldizkari berean: "Mundu zabaleko eztanda hau litzateke musikaren benetako etorkizuna, rock-a aurkitzen den irteerarik gabeko bidetik

ihes egiteko aukera".

Euskal musika tren hori harrapatzeko izan dezakeen aukeraz ere badago arrasto txiki bat. Ian Anderson, "world music"ari buruzko aldizkaririk ospetsuenaren editatzaileak -Folk Roots du izena- honela dio: "Behin euskal talde baten diska bidali zidaten postaz, Kepa Zabaleta Motriku (sic) taldearena. Bi soinu eta danborila (sic) jotzen dituzte: musika ona da, biziduna. Zergatik ez ditugu hemen antzeko gauzak maizago entzuten?"

Eta gai honi lotuta, aurkikuntza baten berri: Madrilgo Ketama flamenko taldeak, Mali-ko Toumani Diabaté "kora" jolea eta Danny Thompson, pentangle folk-talde britainiarren partaide-ohiarekin kaleratu berri duen "Songhay" izeneko diska zoragarria. Berak soilik, "world music"-a jotzen ari den superlatibo guztiak justifika ditzakeen diska. Ederra, benetan.

Mikel Irizar

YAMAHA sonora PANASONIK MUSIMA
 KEF Harman/Kardon ONKYO CEC Vegas
 QUAD
 baile Clener CASIO EGI
 Mission Goodmans NAKAMICHI
 HONNER BASF Ortela
 Zimmerman Polytone Televes
 Fujitsu LARK Roteñ
 Cyrus Fox
 JAMO JBL PIONEER PHILIPS
 TEAC KELLER Moreschi
 carol TORQUE Admira Ortofon JUGGS
 Hantarex Alpine Estrella KONIKA UHER
 Tensai MELOS SHINTON
 Fonestar Otalora kalea Tfnoa 79 29 09

Ingelesko klaseak

maila guztietarako
INGELESERAKO SARBIDEA

Iturriotz, 25 Tfnoa: 79 90 36
 Arrasate

Bidekurutzeta, 19 Tfnoa: 76 30 01
 Bergara

OSTARKU DANTZALEKUA

ZATOZ IGANDEETAKO LOTORA! ASTE HONETAN 10.000PTAKO SARIA

Hezurak astintzeko lekurik aproposena

Uribarri Etorbidea 8 - Tfnoa: 79 84 83

Arrainez betetako piperrak

Duela bi aste, "Branka" jatetxeko Asun Iturbe "Santamaña" sukaldariarekin izandako solasaldia eskaini genizuen. Han, "arrainez betetako piperrak" zelan prestatzen diren azalduko zigula iragartzen genizuen. Hona hemen bereren errezeta:

4 laguntzako osagaiak:

- 16 piper ("piquillo" horieta koak)
- Kipula bat
- 100 gramu esnegain likidoa
- 300 gramu itsasapo edo rapea (garbian)
- Beste hiru piper, zatitu eta orea egiteko.
- Piper zuria.
- Gatza, irina, itsasapoaren ura eta olio.

Saltsarako:

- Kipula bat.
- 2 edo 3 atal berakatz.
- Porru bat.
- Azenario bat.
- Piper berde bat.
- 4 edo bost piper gorri.
- Piper gorrien ura.
- Esnegain likido apur bat.

Piperrak betetzeko kipula txiki-txiki eginda olio epela daukan zartaginara bota, estali eta bigundu arte eduki. Ondoren, 10 minututan egositako rapea zatitu eta bertara bota. Ondo nahastu.

Rapearen ura gehitu eta guztiari eragin. Gero, esnegain likidoa bota eta ondo egosi arte su motelean eduki. Ondo-ondo egosita dagoeanean, gatza, piper zuria eta piper

gorri zatituak gehitu. Orea sendotzeko irina nahastu. Piperrak, ore hau epeldutakoan bete daitezke.

Aparte, saltsa prestatzen da. Zartagin an olio epelduko dugu eta bertara kipula, berakatzak, porrua, azenarioa eta piper berdea txikituta botako. Hauek bigundutakoan piper gorriak zatituta eta eta piper gorrien ura gehitu eta irabiagailu edo batidoran pasatu. Kazolan ipini piper barrubeteak, saltsa gaintetik bota eta pixkat eragin edo astindu kazola, dena berotu eta saltsa piperren barruraino sar dadin.

Azken-azkenean, esnegain pixkat bota saltsari berau arintzeko ... eta kito! Prest daude! On egin dagizuela!

Morokil Taldea



ITSASKI
arrandegia
arrain freskoa
eta
Jaki izoztuak
Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94

Eroski Kontsumatzaileen Komitea Informazioa eta Formazioa

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski denda

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea, 2
Tfnoa 79 29 94
ARRASATE

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Industrialdea

ARETXABALETA

**ARRASATE
Press**

Bidaliezazkiguzu
zure kolaborazioak

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behe Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

Sauna

Arrasaten dauden saunak gero eta bezero gehiago dituzte. Batez ere asteburuetan pertsona asko joaten dira sauna hartzera, eta argipen batzuk egitea komeni da. Saunak, lurrin-bainuak eta izerdia botatzeko gomazko trajeak bezala, egoera fisikoa ez du hobetzen ez eta mantentzen ere. Bere efektuak oso mugatuak dira. Izerdi-botatze hori gehituz pisua galtzen da, baina denboraldi baterako bakarrik, izerdiarekin gorputzaren ura galtzen bait da, eta galera hau erraz errekuiperatzen da ura edan ondoren.

Saunak azaleko odol-kapilar sarea zabaltzen du, eta transpirazioa gehituz, likidoa galtzen da izerdiaren bitartez. Baina galtzen den likido hori berripini egin behar da ura edanez. Ez da pisua galtzeko metodo egokia baina baditu beste efektu batzuk mesedegarri direnak:

— Azaleko odol-zirkulazioa ak-

tibatzen du;

— Azala garbitu eta tonifikatzen du;

— Muskuluak lasaitzen laguntzen du;

— Kiritotza ere lasaitzen da tentsioa gutxituz.

Baina ariketa fisikoari dagokionez ez du ondoriorik, konplemento edo osagarri ona da, hori bai, edozein kiroletarako, eta masaia-sesio batekin konbinatuz gero, pertsona berria bezala utziko zaitu.

Hala eta guztiz ere, berriro esan behar dugu, galtzen den likido hori errekuiperatu egin behar dela.

Praktikoki, debekurik ez duela esan genezake; dena den, bihotzeko gaitzak, arterioesklerosis edo hipertentsioa dutenek, beren sendagilearekin kontsultatu behar dute sauna hartu aurretik, komeni ote zaien jakiteko. Tenperaturaren bapateko aldaketekin saunatik dutxa ho-

tzera pastzerakoan gertatzen den bezala kontuz ibili behar da kasu hauetan. Gorputz bero eta izerdituak dutxa hotz hori hartzean erreakzionatu egiten du eta odol-kapilar sarea itxi egiten da bapatean, tentsio arteriala igo araziz momentuz.

Pertsona osasuntsuengan ez du ondorio txarrik izango baina kaltegarria gerta daiteke lesio kardiakoa edo hipertentsioa dutenentzat. Kasu honetan, eta sendagileak ontzat emanez gero, dutxa hotza izan beharrean, epela hartzea hobe da. Saunara joateko ohitura dutenei gogoratu behar diegu likidoa berreskuratu egin behar dela eta fruituak eta entsaladak jatea komeni zaiela galdutako elektrolitoak (sodioa, potasioa, kloroa...) berriro bereganatzeko, izerdiarekin batera galdu bait dira.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*

Gamei, S.A.

MARRUSKADURAZKO PRENTSAK

PRENTSA ESZENTRIKOAK

PRENTSA HIDRAULIKOAK

TORLOJODUN ERAUNSPENEZKO

PRENTSA

TOTXOTARAKO ZIZALAK

DEFORMAZIO MAKINA BEREZIAK

Nafarroa Etorbidea, 31 Tfnoa 79 55 00 Telefax 79 03 97
ARRASATE

MELIA BIDAIAK

MARTXOAK 24-27

BARTZELONA

Hotela*** + gosaria + autobusa 14.100pta

SALOU

Hotela + mantenu osoa + autobusa 16.475 pta.

LLORET

Hotela + mantenu osoa + autobusa 12.900 pta.

MARTXOAK 24tik APIRILAK 4ra

PALMA

Trena + Itsasontzia + Hotela*** + mantenu osoa 27.660 pta.

MARTXOAK 27tik APIRILAK 4ra

BENIDORM

Autobusa + Hotela + mantenu osoa 12.900 pta.

ELURRETARA BIDAIAK

LUZ ARDIDEN

Apartamentua Martxoak 23-27 7.600 pta

Apartamentua Martxoak 27 Apirilak 2 11.225 pta

Olarte, 26 Tfnoa: 79 00 00 ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

Astero zuekin

ETXEBIZITZAK

- Garaje indibiduala salgai Udala enparantzan. Tfnoa: 79 90 55.
- 37m2ko merkataritzako lokala salgai. Kale aldea, 13. Tfnoa: 79 83 50.
- Pisua salgai Oben Errekan. Tfnoa: 79 67 59
- Merkataritzako lokala esku aldatu nahi da Uribe Auzoan. Tfnoa: 79 49 88 Prezioa elkarren artean jartzeko.
- Culleran (Balentzia) pisua errentan eman nahi da urte osoan zehar. Tfnoa: 79 71 94
- Pisua salgai. Aldai gain Tfnoa: 79 71 93
- Pisua salgai Salamankan. Tfnoa: 79 70 72.
- Merkataritzako lokala saldu edo errentan eman nahi da. 37m2; Kalealdea, 13. Tfnoa. 798350
- Pisua salgai altzari eta guzti, Makatzenan (5-4º A) Tfnoa. 799357
- Apartamentua saltzen dut Zarautzen altzari eta guzti. Prezioa 8. 500. 000 pta. Tfnoa 79 24 79.
- Lehen bait lehen pisu bat errentan hartu nahi dugu Arrasaten, merkea bada hobe. Tfnoa 79 09 00. Lorea.

LANA

- Neska bat behar dugu umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak dei 79 35 44 telefonora.
- Emakume gazte batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 58 61.
- Neska bat behar dugu etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 62 82
- Euskal Herriko Autonomi Elkarteako Administrazioak behar du
 - *Nekazal Ingeneria edo Mendi Ingeneria edo Biologia-Zientzetan lizentziaduna. Nekazal eta arrautza estadistiketan aditua
 - *Goimailako edo erdimailako tituluduna. Itzultzaile. EGA-duna
 - *2 diplomatu edo lizentziadun Geografia eta Historian edo Kimika-Zientzietan. (Dokumentazio ondare berriztaileak)
 - *Diplomatu edo lizentziaduna Geografia eta Historian edo informazio Zientzetan. (Dokumentazio-antolaketa)
 - *L. H. 1 Mailako tituluduna (nekazal adarra). Laborategiko laguntzailea. Eskari-orriak Herri-Ardularitzaren Euskal-Erakundeak edozein egoitzatan.
- Euskal Herriko Autonomi Elkarteako Administrazioak behar du
 - *Elkarrizketagileak eta
 - *Ikuskatzaileak.
 Eskari-orriak eta bestelako informazioa lortzeko. H. A. E. E.ko edozein egoitzatan.

- Erreminta-zorroztaila behar du Eibar-ko enpresa batek. Interesatuak dei 713227-713789 telefonoetara.
- Makina-erremintak saltzeko pertsona behar du Eibarko enpresa batek. Interesatuak Eibarko 286 postakutxara bidali behar dute beren curriculumak.
- Eibarko enpresa batek idazkari bat behar du. Interesatuak Eibarko 286 postakutxara bidali behar dute beren curriculumak.

SALEROSKETAK

- Peugeot 205 SR salgai. 86ko Uztailakoa, Tfnoa: 945-44 53 93 Ana.
- Ia estreinatu gabeko larruzko jaka saltzen dut. Peio. Tfnoa.: 79 26 62
- Umeentzako kotxea salgai. Tfnoa 79 71 13
- MARAFI markako kafegailua saldu nahi nuke, berri samarra, baxera eta guzti., Oso merke. Tfnoa 79 97 31 .
- 10 abiadura eta 54 neurritzko "Corbeta" txirringa salgai dago. Tfnoa 79 58 29.
- Bigarren eskuko sukaldeko altzariak saltzen dira., egoera onean. Interesatuak dei telefonora 79 93 14
- R5-TS autoa (SS-I matrikula) salgai. Tfnoa: 79 7135.



ARRASATEN HILDAKOAK

Felipe Kortabarria, 84 urte

Florenzia Basogain Uribarren, 78 urte

Luis Mari Aranburu Bidaburu, 58 urte

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA
TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA: _____

Zeharkale estalia 1,1b 20.500 ARRASATE Tfnoa: 797164

Irakurle idazleen orduak jo du. Arrasate Press-eko buzoia zabaldu eta, eskutizetan murgilduta ez bagara geratu ere, "Zeuk sortua" sail honetako lan mordoska jaso dugu. Tartean, aste honetan aurkezten dizuegun ipuina, sarrera errealista, jarraipen psikodelikoa eta bukaera surrealista duena. Anima zaitezte zeuek ere zuen paper ezkutuak bidaltzera.


laneguna

"Bai, gaur, bi barik lau hartuko ditut ... Jakin badakit osasunerako ez dela batere ona, ez zaidala komeni ..., baina hala-beharrezkoa zait egun osoa lanean emango badut, halabe-harrezkoa oraindik praktikan jarri gabe daukadan ene proiektu aurrerakoi honen bidez sekulako ospe eta aintza lortuko baditut. A, diruaren goxoa!

Tira ba, ez dago denbora gal-tzerik, lau pilula ohizko kafetxoarekin eta dena barrura!

Likido beroa eztarriratuaz batera, irten egin zen bere bulegotik goi-mailako, exekutibo-boa, oso urduri, begiak platerak legez. Ostiko batez edifizioko ate nagusia zabaldu eta kalean zegoen, bere kotxerantz ibilki. Ziztu bizian zeharkatu zituen kaleak bere "Porsche" metal kolorekoaz, bidea oztopa ziezaioketen seinale, semaforu, oinezko eta klaxon-hotsei ezaxolati. Hiri bazterreko zabortegira heldu zen. Geratu, kotxea bide bazterrean aparkatu eta zabortegia inguraz-zen zuen harresia iragan zuen.

Lautadatxoa; plastikozko poltsa koloretsuz gainezka. Kamioien erruberek zabaldutako bide malkarra erdian, lautada-txoaren ertzeraino iristen zen bidea. Beherantz, aldatz gogor luzea, hondakinez beterik berau ere. Sute indargerren batzuk han-hemenka. Arratoiak berriz, nona-



hi; arratoiak, beren etengabeko hortz-limatze aspergarri eta, ere berean, ezinbestekoarekin. Beherago, han ondoan, zurezko txabola-multzoa errekatxo batek zeharkatua. Giza-hots urrunak: Ijitoak.

Nolabaiteko ezinegona soma zekiokkeen goi-mailako exekutiboari zabor artean zerbaiten bila hasi zenean. Gorbata askatu zuen. Intsektizida poto batean erreparatu zuen. Jaso, artean erdi beteta zegoela egiaz

tatu, ahora eraman, muturzuloari eragin eta agortzeraino irentsi zuen bere edukina, poto-erdi edo. Aurpegia zurbildu egin zitzaion. Tenore hartan, korrika hasi eta lautadaren ertzeraino heldu zen nola edo hala. Bertan, ordea, infladore batekin hankalatraba egin eta maldan beheara amildu zen, zilipurdi geldiezinetan. Erreka ondoan geratu zen, hanka, beso, burdin, erropa, neumatiko, panpin zahar, janari apur ustel eta mota guztietako hondakinen arteko nahaspila nardagarrian bizikleta-koadro herdoildu bati loturik.

Ijito gazte argal bat agertu zen orduan, begirada ilunekoa, gabardina zantarra soinean. Aldean mihise zuri bat eta honi zegokion hiruroinekoa zeramatzan. Tramankulua lurrean ondo kokatu eta marrazteari ekin zion, bere aurrean askatu ezinka zetzan goi-mailako exekutiboaren erretrata-tzeari, alegia. Amaitzerakoan exekutiboarengana hurbildu eta koadroa erakutsi zion.

- Obraren izena ... Obraren izena ...- xuxurlatu zuen goi-mailako exekutiboak estu eta larri, hitzegiten nekez uzten zion goilara oker bat ahoan zuelarik.

- "CRUCIFIXION" - erantzun zion ijitoak, koadroa besapean hartu, hiruroinekoa tolestu, berau soineratu, eta handik alde egin aurretik.

Diego Martiartu



A U Z O L A G U N

Gure **JANARIN** jaki prestatuak eta aurreprestatuak aurkezten dizkizugu.

Arrasaten, oraingoz, Uribe Auzoko **EROSKI** supermerkatuan aurkituko dituzu.

■ **Kale kontuak eta euskal irratsaio dramatikoak:** Ordubata hamar gutxi inguruan antenaritzen zaigu, "Goizean behin" magazinaren barruan, Euskadi Irratiaren dramatizazio hau. Ez zait gustatzen nola gelditu den eta normalean aldatu egiten dut emisoraz. Batetik, oso nabarmena da jokatu baino irakurri egiten dutela, eta irakurri ere agudo, informatiboetan gertatzen den moduan. Bestetik, antzezleak bertako esatariak izateak ez dio mesede handirik egiten obrari. Oso zail egiten zait Mari, Fortunata, Xefe eta Felipe pertsonaiengan sinestea, niretzat ahots horiek Tere Beloki, Arantxa Irastortza, Julian Beloki eta Joseba Agirretxearenak bait dira, hau da, Euskadi Irratiaren goizeko programazioa betetzen duten esatariena, hain zuzen.

Euskal irratigintzan urriak izan dira maila honetan nik behintzat gogoan ditudan esperimenduak. Orain zortzi bat urte, Bilboko Herri Irratiak Bernardo Atxagaren istorio bat antenaratu zuen, Eguzki eta beste batzuen ahotsekin. Urte haietan ere, Lazkaoko Euskal Eskolakoek "Gillen Tell" antzeztu zuten Segura Irratian. Dexente beranduago, iaz, Loiolako Herri Irratiak ere Imanol Eliasen "Zirikadak" eman zituen 50 ataletan banatuta, Azpeitiko "Antxieta" taldearen eskutik. Baten bat aipatzeko laga badut ere, ikus dezakezue zein bide laburra egin duen euskal irratsaio dramatikoak.

Ez pentsa goian esandakoagatik irratsaio dramatikoek kontra nagoenik, alderantziz. Gustatzen zaizkit ondo eginak eta euskal irratiek eskaini behar dituztela iruditzen zait.

■ **Funtzioa:** Hasiara guztiek izaten dituzten akatsak gorabehera, oro har gustatu zitzaidan lehen emanaldia. Garbifite eta Zuriñe pertsonaiek adibidez, sekulako jokoa eman dezakete. Abestiak ere oso ondo egokituak zeuden. Hala ere, gonbidatuekin kale egin zutelakoan nago. Irrikitan nengoen Amatiño eta Ibarzabalen erantzun eta jarrerak ikusteko, galdera zorrotz, umoretsu esanguratsu eta irreberenteen aurrean, baina itaun horiek ez ziren inon azaldu eta gonbidatuek apenas izan zuten ganoraz berba egiteko egokierarik, aurkezleek lapurtu egin bait zieten une hartan zegoen protagonismoa.

Dena dela, lehen esan bezala, gure ostiral gauak alai ditzakeen Funtzioa dugu hau; ETB lean ortiralero, gaueko bederatzietan.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **ATRILA**, larunbatean, hilak 4, eguerdiko 12,30etan. Sinfonien zirkloarekin jarraituz, aste honetan Sergiu Celibidache rumanoarren zuzendaritzapean, Anton BRUCENER-en 4. Sinfonia entzuteko aukera izango duzue. Musika klasiko edota musika onzalea bazara, ez galdu aukera.

■ **Kirol-erretransmisioak**, larunbatean, 15,10etan NBAko lehia paregabea: Los Angeles Lakers - Detroit Pistons. Eta, egun berean, 20,00etan futbol partidua: Sporting Gijon - Barcelona. Igandean, berriz, 12,00 esku-baloia ikusteko aukera izango duzue: Arrate - Michelin; eta 18,15ean, azkenik, Liga Estataleko saski-baloiko partidua: Mayoral Maristas - Taugrés.

■ **"Agur bihotza"** ("Farewell my lovely", 1975). Moose Malloy, itzal handiko azpilurra, banketxe batean atrakatzegatik leporatu zioten espetxe zigorra berdindurik, laleratu berria da. Ohosturiko 80.000 dolarrek berreskuratu nahi izanez gero bere neska-kide ohia, Velma, aurkitu beharko du. Marlowe inbestigatzaile pribatuaren laguntzaz Velmaren bila hasten da. Zuzendaria: Dick Richards. Antzezleak: Robert Mitchum, Charlotte Ramping, John Ireland.

OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

SORGINA IRRATIA (105 F.M)

TFNOA: 79 82 68

Ostirala

7-9 KK Profe puag

7-9 Piramyd

10-11,30 Fermin Crosby-ren ordua

11,30-12,30 Beltza blues klub

Larunbata

8-9 Onda katxondoa

9-11 Dana ondo dabil

11-1 Banpiroak

Igandea

10-11 Puuag!!! (Musika eta kontra informazioa)

Asteartea

7-8 A ze hiru hanka aulki batentzat

8-10 Pufa kalufa

10-11 Bai zera!

11-12 Irrintzi

Osteguna

1-2 Gaurko bazkaria

7-8 Exterminioa helburu

8-9 Mara-mara (Emakumeen

Asanblada)

9-10 Itxungitako dragoie (AED)

10-11 Amen Jesus!

11-12 Gau erdiko klasikoak

	KO	NA	RRI	
RIK	TO		DIZ	HI
	E	RIK	NEZ	EZ
E	KO	ZAL	EZ	
TA				OI

Esaera zaharrak, zaldiz

Ondorengo atsotitza mutil edota neskazaharrentzat da mintzo.. Hots, altuegi begiratzeagatik ezer gabe gelditzen direnetaz.

Bertako hitz ahaztuak

Ustekabean zera aurkitu dut, hemen Otsaila-ri beste modu batetan ere deitzen zitzaiola. Zuk ere jakin nahi baduzu, osa ezazu hitza, horretarako behar dituzun hizkiak ondorengo zerrendatik hartuz, aipatu kopuruan.

TAKOLO — 3

ZER — 0

TALO — 2

KAIA — 2

LAKET — 3

— A — A — — A

Soluzioak: 19. orrialdean

P. Mokordo

Horoskopoa



ARIES

(Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra)

Aspaldi honetan norbaitek zirikatzen zaitu baina ez kasu handirik egin. Jokuan sartzen bazara ez duzu ezer irabaziko, zu nahastea besterik ez du nahi.



TAURUS

(Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra)

Amaitu zaizkizun patxada eta atsedena. Ez zaitez kexatu, orain arteko bizimodua ez zitzaizun komeni. Gogor jarraitu, ba. Nekaturik bazabiltza ere, esfortzu bat egitea ondo etorriko zaizu.



GEMINI

(Maiatzaren 21etik
Ekainaren 21era)

Nahigabeturik ibili zara aste honetan. Ondo ikusita, ez dago hala egoteko arrazoi berezirik. Baietz uste baduzu, aldatzeko aukera zure esku dago.



CANCER

(Ekainaren 22etik
Uztailaren 22ra)

Zintzo jokatzeko ari zara. Aldamenekoek jakinerazten ez badizute ere, pozik daukazazu. Horrela jarraitu, fruituak Udaberriaren jaso soko dituzu.



LEO

(Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra)


Hasi berriarekin jarraitu gustora sentituko zara eta. Planeatzen ari zaren bidaia ere positiboa gertatuko zaizu. Fortunaren gurpilak zure alde ematen ditu bueltak.



VIRGO

(Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra)

Zeure burua zaintzea oso ondo dago, baina hau obsesio bat bihurtzen bada, osasuna galtzea izan daiteke emaitza. Gabeko martxak, pasatu gabe, ez dizu kalterik egingo.



LIBRA

(Irailaren 24etik
Urriaren 23ra)

Iharduera ludikoren batean sartzea ondo le-torkizuke, zabiltzanetan agobiatu besterik ez zara egiten eta. Aska ezazu zure irudimena.



SCORPIO

(Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra)

Beroegia zara eta gehiegikeriak ondorio txarrak ekar ditzake. Zure impulsoak neurtzen ez badituzu, suhiltzaileei deitu beharrean aurkituko zara.



SAGITARIUS

(Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era)

Laneko arazoak poliki-poliki konpon-tzera doaz. Nahiz eta zure lagunek eredu-tzat ez hartu, horrela jarraitu beharko ze-nuke, ondo bideratuta zaude eta.



CAPRICORN

(Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra)


Zure eginkizunak betetzeko traba asko edukiko duzu, baina irudimenaz baliatzen bazara, oztopoak desagertuko dira. Ez utzi dena pikutara joatea, borrokatu eta nahi duzuna lortuko duzu.



AQUARIUS

(Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra)

Ez ezazu egoera hori mantendu. Suposa-tzen zaizun tentsioak ez dizu beste arloe-tan ondo jokatzeko uzten. Aurkitu, ba, kon-ponbidea, erabakia zeurea da eta.



PISCIS

(Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra)

Eguzkia zure esparruan sartu da, eragin positiboak izango dituzularik. Arduraturik zauzkan etorkizuna argituz doa zuen bel-durrak dezagertaraziz. Bide onetik zoaz.

Arrasateko industria garrantzitsuenek egiten dituzten produktuak

Arrasateko Industria-Zentsuaren arabera, Arrasaten 136 enpresa daude eta enpresa horietan guztira 7.466 langile ari dira lanean.

Zertan dihardute enpresa horiek? Galdera honi erantzuteko, aste honetan 100 langile baino gehiago dituzten enpresa gehienek zerrenda egin dugu, handienetatik txikienetara ordenatuz.

—ULGOR, S.C.I (2.113 langile)

Linea zuriko etxelektragarailuak. Ikuzgailu automatikoak; gas-sukalde eta sukalde elektrikoak; labeak; sukaldegaineak; hozkailuak.

—UNION CERRAJERA, S.A. (636 langile)

Produktu metalurgiko transformatuak. Mota askotariko sarrailak; butanoko eta propanoko botilak; torlojuak eta trenbideei eusteko gabilak; hotzetan ijetzitako zumi-

tzak; kamioientzako gurpilak.

—FUNDICIONES GELMA, S.A.L. (571 langile)

Tutuentzako burdin xaflakorrezko akzesorioak, etxerako artikulak; piezen daldaketa planoaren arabera, burdinurtu xaflakor zuriz eta nodular beltzez; fittin-ak; okela txikitze makinak; ate-itxigailuak; burdinurtu xaflakor zurizko piezak, grisezkoak eta nodularrezkoak.

—FAGOR ELECTROTECNICA, S.C.L. (559 langile)

Señaleen tratamendurako aparatuak eta erdieroalezko osagaiak. Diodo arteztzaileak, diodo lasterrak; diono supresoreak, zubi arteztzaileak; telebistako sintonizadoreak, kable bidezko telebistarako bihurtutakoak, satelite bidezko telebistako hargailu eta moduladoreak.

—AMAT, S.COOP. (350 langile)

Tutuentzako DIN 2.950 ereduko akzesorioak (fitting-ak) -urtero 6.500 tonelada burdinurtu xaflakor

bihotz-zurizkoak; burdinezko pieza galdatu landugabeen fabrikazioa eskabidearen arabera (as cast) -urtero 4.000 tonelada nodularrezko burdinaz edota burdin xaflakorraz.

—ALECOOP, S. COOP. (350 langile)

Etxelektragarailuentzako instalazio elektrikoak eta automozioa batipat. Lanbide Eskoletarako eta Unibertsitateetarako aparatu didaktikoak. Transfer sistemak, maneriagailu mekaniko eta hidraulikoak eta pintza-elikagarailuak.

—AUZO LAGUN, S.COOP. (330 langile)

Etxeak kontserbatzeko eta prest jartzeko garbiketak. Gainera sukalden eta balbulen muntaia.

—RONEO, UNION CERRAJERA, S.A. (292 langile)

Bulego-haltzari metalikoak. Formikazko eta egurrezko mahaia. Armairua, artxidadoreak, bionboak, erropak gordetzeko armairua.

IKER



FAGOR

**SUKALDE
LILURAGARRIAK**

Bainugela erakusketa
Zarugalde Kalea, 52
Tfnoa: 79 99 42

Sukalde erakusketa
Udala Plaza, z/g
Tfnoa: 79 00 42

ARRASATE